



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Ispiluak eta eskaparateak

Ispiluak eta eskaparateak zertan diren ezberdinak, horixe galdetzen genuen umetan. Biak kristalezkoak izanda, zergatik hartzen duen batek izen bat eta besteak bestea; zergatik bata gure isla itzultzen digun eta besteak barruan daukana ikusten uzten duen. Eta galdetza ibili ginen galdetzeari utzi genion arte, inork sinesteko moduko erantzunik ematen ez zigulako. Gorroto genuen erosketak egitea, kolore bat aukeratu beharra, “zein da zure kolore gustukoa” malapartatu hori, gerora doinu berriak hartzen joango zena, “zeindazurekantagustukoa” “zeindazurepelikulangustukoa” “zeindazurelagunikoa”, egunero kolore, kantu, pelikula edo lagun bera nahiko bagenu bezala. Hasi-eran ihes egingo genien galderei, baina noizbait, galderak bukatuko zirelakoan akaso, erantzuten hasiko ginen, “berdea” adibidez, zerbait aukeratzearen, eta galderetan preso egotetik erantzunetan korapilatzerara igaro ginen, behin emandako erantzunari traizio ez egitearren etengabe errepikatzeraino. Guk ere sinesterraino ia.

Eskaparateak ez dira ispiluak, horixe ikasi genuen umetan, kale hauetan genbiltzala. Orduan ez zegoen Fnac edo Zara erraldoirik hemen, San Martingo merkatua eta haren barazki, arrain, haragi eta denetariko usainen nahasketa besterik ez. Amonak zeukan postura etortzen ginen, laguntzeko aitza- kien enbarazu pixka bat egitera. Orduan ikasi genuen hitzak ere moztortu daitezkeela, eguna joan eta eguna etorri galdera berak errepikatzea dela heldu izatea, “zer moduz familia?”, “hau eguraldia” eta halakoak. Eta gu ikusita-koan normaltasuna apurtu arren, berehala etortzen ziren etengabe errepikatuko ziren komentarioak –“bai mutiko handia”, “zenbat hazi den”, pedi- atraren hazkunde taulan minimoaren azpitik genbiltzala bagenekien arren beti baietz egin behar hura–, eta berriz ere hasiera-ko normaltasunerako itzulera hura.

Agian horregatik gustatuko zaizkit inauteriak, aurrez pentsatutako gal-dera eta erantzun errepikatuek ez

dutelako balio. Eta egunerokoa ez den gure moztortuan ez daukagulako kolo- re bakar bat, kantu bakar bat, pelikula bakar bat edo lagun bakar bat aukeratu beharrik; denok sentitzen dugu gure burua lotsagarri etxeko sarrailari bi buelta eman eta giltza moztortu azpiko poltsa ezkutu eta deserosoren batean gorde eta kalera ateratzen garenean, egunero pasatzen garen kale hauetatik pasatzeko. Eta egunero ikusten gaituz- ten ispilu eta eskaparateak harritu egi- ten dira, ez baitute egunerokoa ikus- ten, eta pentsatzen dugu ezetz, ispiluak edo eskaparateak ez direla gauza bera edo akaso bai, nork daki, optikaz betetako mundu batean bizi gara, miopiak edo hipermetropiak jo- ta, gure burua edo ingurua lausotuta, eta batzuetan eskaparatea bat dator is- piluarekin baina normalean ez, ez gai- tuzte gure burua ikusten dugun bezala ikusten edo bai, nork daki, inauterie- tan errealtatea bera da nahasten dena,

lausotzen dena, eta hitz handiak apur- tu egiten zaizkit.

Normaltasuna moztortu astuna da ba- tzuetan, badirudi inor ez dela bere bi- detik irtengo, inauterietatik kanpoko goiz euritsu honetan, adibidez; inork ez duela esan beharko ez lukeen zerbait esango, inork ez duela egin beharko ez lukeen zerbait egingo, begiratu beharko ez lukeen norabait begiratuko, baina normaltasuna ez da izara fin bat beste- rik, aski da euri pixka bat, haize firfira bat eta kaleko egunkariak desegin egi- ten dira eta aterkiak barrutik kanpora geratzen dira, ispiluak eskaparate eta eskaparateak ispilu bihurtuta, eta jen- dea lasterka dendetara, tabernetara jo- ango da, berriz ere arropa txukuntzera, kafe bat eskatu eta arnasa berreskuratu eta komunera joan eta ispilura begiratu eta berriz ere moztortu behar duen le- kuan jarri, behar duen bezala, egunero- ko inauterietara itzultzeko. •



«Ispiluak eta eskaparateak zertan diren ezberdinak galdetzen genuen».

Juan Carlos RUIZ | A. PRESS